



**ANIZTASUN
TRATAERAREN
PLANGINTZA**

ANIZTASUN TRATAERAREN PLANGINTZA

1.- Sarrera

2.- Hezkuntza Beharrak

3.- Plangintzaren atalak

3.1.- Orientazio eta tutoria plangintza edo plana

3.2.- Aniztasunaren aurrean plangintza edo plana

3.2.1.- Baliabideen antolaketa

3.2.2.- Atentzio Irizpideak

3.2.3.- Neurriak eta atentzio erak

A.- Atentzio neurriak

A.1.- Kurrikularrak

A.2.- Antolaketa neurriak

B.- Atentzio erak

3.2.4.- H.B.Bak dituzten ikasleen aurrean jarraitu beharreko prozedura

3.3.- Multikulturalitatea Trataera

ANIZTASUN TRATAERAREN PLANGINTZA

1.- SARRERA

Hezkuntzaren erronka nagusienetariko bat **Aniztasunaren Trataera** dugu eta, hau egokitu dadin, ikaslegoaren hezkuntza beharrak kontutan izatea ezinbestekoa da. Gure gizartea gero eta anitzagoa da linguistiko, kultural eta etorkinen mugimendua kontutan izaten baditugu eta, elkarbizitza ziurtatzeko, denon arteko egokitzapenaren beharrean gaude.

Plangintza honetan Ikastetxeko baliabide material eta pertsonalak ikaslego anitzaren aurrean modu egoki batez **antolatu** daitetzen, ustezko jokabide eta erabilpenak biltzen dira.

2.- HEZKUNTZA BEHARRAK

Hezkuntza Beharra kontzeptuari dagokionez esan beharra dago behar guztiek berdinak ez direnez ezta beraien iturburuak ere, hezkuntz neurri ezberdinak behar dituztela. Hauen artean batzuk eskolarizazio osoan iraungo dute besteek behin-behinekoak izango diren legez. Iturburuak zergati diferenteak izan ditzazke: kontextu sozial eta kulturala, hezkuntza historia, ezgaitasun psikiko, zentzumenezkoak edo mugimenduzkoak, jokabide nahaste larriak edota gaitsun intelektual apartak izateagatik. Beraz, batzuk ohizkoak izango dira maizago ematen direlako eta, besteak, alegia ez-ohizkoak eta hauei **Hezkuntza Behar Bereziak (H.B.B.)** deituko diegu. Azken aipaturako hauek laguntza espezifikoak behar izango dituzte eskolarizazio osoan edota gehiengoan.

Gehiago zehaztuz, lau egoera ezberdinekin aurkitu gaitzke:

1.- H.B.B.-ak edota HPB (hezkuntza premi beharrak) dituen ikaslegoa hauek ezgaitasun psikiko, zentzumenezkoak edo mugimenduzkoak eta baita jokabide nahaste larriak izan ditzazketeelako. Kasu hauen aurrean nahitanahiezkoak dira **Egokitzapen Kurrikular Indibidualak (E.K.I.)** bai material aldetik nola kurrikularrak ere zenbait arloetan.

2.- H.B.B.-ak ikaste arazo larriak dituztelako eta ziklo bat edo gehiagoko atzerapenarekin.

3.- Ikasketetetan arazoren bat dutenak bainan EKI esanguratsurik behar gabe. Kasu hauen aurrean ikas errefuertzak nahikoak izaten dira normalean.

4.- Gaitasun intelektuak aparta.. Hauekiko Egokitzapen Aberasgarriak edota Gehigarriak martxan jarri beharko dira.

3.- PLANGINTZAREN ATALAK

Behin H.B.B.-ak kontzeptua garatu ondoren gure ikastetxeko PCC-n Aniztasun Trataeraren Plangintza gehitu beharra dugu atal hauekin:

3.1.- Orientazio eta Tutoria Plangintza edo Plana

3.2.- Aniztasunaren aurrean Plangintza edo Plana

3.3.- Multikulturalitate Trataera

Aipatutako plangintza, Koordinazio Pedagogiko Batzordeari dagokio elaboratzea proposamena Hezkuntzarako Laguntza Unitatea (Unidad de Apoyo Pedagogiko, U.A.E.) delakoak egiten badu ere eta, PCC-ren atal bat izanen da aldezturik Klausuroak bere oneritzia ematen badio.

3.1.- Orientazio eta Tutoria Plangintza edo Plana

Plangintza honen barnean ekintza ezberdinak sartzen dira: ikaslearen baldintza pertsonalak ezagutu; talde elkarketak; hezkuntza errefortzatu antolatuta; ikaslearen irakaslearen ebaluaketa eta EKI-en laborazioa.

Ikaslearen beharren aurrean ikastetxeko irakasle guztiari dagokio hezkuntza neurri egokiak plazaratzea. Interbentzio espezializatuak ohizko neurriek erantzuna eman ezin diotenean bakarrik jarriko dira martxan. Hezkuntza Beharrak ezgaitasun kasuak atsekita ez badaude, nahiz ziklo bateko edo gehiagoko atzerapena izan, irakasle arruntari dagokio erantzuna ematea. Gauza bera esan daiteke egokitzapen kurrikular esanguratsuak behar ez dituztenean.

1-GO GEHIGARRIA

ORIENTAZIO ETA TUTORIA PLANGINTZA

HELBURUAK	EGINKIZUNAK	EKINTZA ADIBIDEAK
<p>1-go HELBURUA <small>Hezkuntzaren izaera integrala bultzatu pertsonaren alderdi guztiak landuz eta hezkuntza indibiduala bilatuz.</small></p> <p>2.-n HELBURUA Hezkuntza ikaslearen beharretara egokitu beharrezko egokitzapen kurrikular eta metodologikoak eginez.</p>	<p>1-go EGINKIZUNA Ikaslearen interesak ezagutu eta hauen talde integrazioan lagundu.</p> <p>2-n EGINKIZUNA Ikaslearen arazo eta kezka bideratu.</p> <p>3-n EGINKIZUNA Dagokien taldean eta Eskola munduan integratzen lagundu.</p> <p>4-n EGINKIZUNA Ikas-irakas prozesua personalizatzen lagundu.</p> <p>5-n EGINKIZUNA Inguru sozio-kultural eta naturalean partehartzen aktiboa izatera bultzatu.</p> <p>1-go EGINKIZUNA Kasu egin eta ahal denean aurrakasi ikas zailtasun eta hezkuntza behar maizena dagokien erantzuna eman ahal izateko.</p> <p>2-n EGINKIZUNA Ikaslearen ikas prozesuaren jarraipena egin zailtasunak eta beharrei erantzun egokiak eskeini ahal izateko.</p>	<p>1-go EKINTZA ADIBIDEA Ikaslearen harrera eta integrazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tutore eta ikaslearen aurkezpena • Ikasurte plangintza: <ul style="list-style-type: none"> . Jarrera arauak . Ordutegia . Materiala . Arduren banaketa • Ikaslearen elkarezagutza <ul style="list-style-type: none"> . Beraien arteko aurkezpenak: telefono zk.; familia; guraso lanbideak... . Harremanak sendotzeko ekintzak: jolasak; eskutitzak... • Eskolaren ezagutza <ul style="list-style-type: none"> . Egoitza . Antolaketa . Tutoria eta gelak <p>2-n EKINTZA ADIBIDEA Tutorien antolaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikaslearen datu bilketa: <ul style="list-style-type: none"> . Datu pertsonal eta familiarikoa . Errendimendua . Talde ezaugarria. Egitura. Dinamika . Egokitzapena . Ikasketak . H.B.B. • Gelako antolaketa: <ul style="list-style-type: none"> . Ardurak . Arauak . Taldeak . Laguntza antolaketa: <ul style="list-style-type: none"> . Errefuertzak . E.K.I -ak

<p>3-n HELBURUA Hezkuntzaren orientazioa azpimarratu. Orientazio bizitzan eta bizitzarako ikasketa funtzioanalak bultzatuz.</p>	<p>1-go EGINKIZUNA Ingurugiro sozio-kultural eta naturalean partehartze jarrerak bultzatu</p>	<p>1-go EKINTZA ADIBIDEA Aniztasun kultural eta etnikoa lantzeko ekintzak guztien integrazioa bultzatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gelako programaketan zeharkako gaiak sartu ezaugarri kultural eta etnikoak sartuz. • Konfliktu sozialak gelara eraman eztabaidatzeko.
<p>4-n HELBURUA Heldutasun pertsonala, balore sistema, norberekiko identitatea eta erabakiak hartzeko ahalmenak garatu bizitzarako.</p>	<p>1-go EGINKIZUNA Bakoitzaren ezagutza eta autoestima landu.</p>	<p>1-go EKINTZA ADIBIDEA Garapen pertsonala eta eskola egokitzapena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Partehartze ekintzak: <ul style="list-style-type: none"> . Mandatuak . Eztabaida taldeak . Lan taldeak . Gelako asanbladak • Trebetasun sozialak <ul style="list-style-type: none"> . Autoestima . Autokontrola . Kideen arteko elkarbizitza . Tutore-ikasle harremanak • Taldean ikasle bakoitzaren ezagutza <ul style="list-style-type: none"> . Soziogramak . Jarrerak . Zailtasunak . Elkarriketa indibidualak . Jarrera kontrolak
<p>5-n HELBURUA Ikas zailtasunak aurrikusi eta ez sortu ondoren bakarrik atenditu.</p>	<p>1-go EGINKIZUNA 2-n Helburuko 1-go eginkizuna ikusi</p>	<p>1-go EKINTZA ADIBIDEA 2-n Helburuko 1-go Ekintza adibidea ikusi (Hasierako ebaluaketa)</p> <p>2-n EKINTZA ADIBIDEA Lan azturak lortu eta hobetu</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko azturak: <ul style="list-style-type: none"> . Egoki eseri . Erlajazioa . Autonomia eta ordena • Ikas teknikak: <ul style="list-style-type: none"> . Lan indibiduala . Talde lana . Lan pertsonalaren antolaketa • Trebetasun instrumentalak: <ul style="list-style-type: none"> . Irakur ulermena . Informazio bilketako prozedurak . Oroimen eta ebokazio trebetasunak • Ikasketa prozedurak: <ul style="list-style-type: none"> . Denbora planifikazioa . Inguruko baldintzak . Familiaren laguntza • Motibazio teknikak: <ul style="list-style-type: none"> . Tarearen aurrean erresponsabilitatea . Zailtasun egokiko ariketak . Ariketa proposamenetan ikaslearen partehartzea . Porrotaren onarpena

<p>6-n HELBURUA Eskolako partaide guztien arteko elkarekintza bultzatu eta, behar ezkerro, arazoak argitzan lagundu</p>	<p>1-go EGINKIZUNA Ikasleei dakokien informazioa guraso eta tutoreen artean elkartrukatu</p> <p>2-n EGINKIZUNA Tutore eta gurasoen arteko kooperazioa</p> <p>3-n EGINKIZUNA Seme alaben ikasketetan partehartzera bultzatu gurasoak</p> <p>4-n EGINKIZUNA Irakasle eta ikasleen arteko arazoetan parte hartu eta gurasoak informatu</p>	<p>1-go EKINTZA ADIBIDEA Guraso asanblada</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eman: <ul style="list-style-type: none"> . Urteko programazioa: Helburu nagusiak . Gelako programaketa . Ebaluaketa prozesua . Kanpoko eta ekintza gehigarriak . Lan pertsonala eta denbora librearen erabilpena <p>2-n EKINTZA ADIBIDEA Familiarekin elkarrizketak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazio trukaketa: <ul style="list-style-type: none"> . Jarrerak, ohiturak, interesak... . Errendimendu eskolarra . Hezkuntza beharrak . Talde integrazioa . Lan pertsonala <p>3-n EKINTZA ADIBIDEA Ikasleen asanblada</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gelako arauak. Disziplina • Arazoen irtenbide bilaketa • Talde antolaketa, ekintza ebaluaketak, proiektu garapena <p>4-n EKINTZA ADIBIDEA Bakarkako elkarrizketak ikasleekin</p> <ul style="list-style-type: none"> • Garapen pertsonala, egokitzapen eskolara eta ebaluaketa gaitzat hartuz(ikusi 4-n helburuko 1-go ekintza adibidea)

--	--	--

3.2.- Aniztasunaren aurrean Plangintza edo Plana

1.- Baliabideen antolaketa

2.1.1.- Hezkuntzarako Laguntza Unitatea (2-n Gehigarria)

2.1.2.- Pedagogia Terapeutikoko irakasleen esku-hartzerako irizpide orokorrak (3-n Gehigarria)

2.1.3.- Logopedaren esku-hartzeko irizpide orokorrak (4-n Gehigarria)

2.- Atentzio Erizpideak

- Interbentzio zuzenak eta espezializatuak neurri orokorrak nahikoak ez direnean bakarrik jarriko dira martxan. Kasu egin P.T. eta Logopedaren erizpideei.
- Hezkuntzarako Laguntza Unitateak (U.A.E) tutoreekin batera zein ikasleek laguntza espezializatua behar duten zehaztuko dute Atentzio Plangintza eratuz. Aipatutako plangintza Koordinaketa Pedagogiko Batzordeak onartu beharra du.
- Sakontasunari eta adin txikienei lehentasuna emanen zaie. Era berean ikastetxeko baliabide pertsonalak kontutan izanen dira hauen antolaketa bezala (taldeko ikasle kopurua; maila ezberdinak gela berean...)

3.- Neurriak eta Atentzio Erak

3.1.- Atentzio Erak

Atentzioak mi motatakoak izan daitezke:

3.1.1.- Kurrikularrak

1.- Programazio didaktikoen antolaketa eta garapena

Tutoreek, beraien programaketetan, helburu, edukinak eta ebaluaketa erizpideak zehazterakoan maila ezberdinekoak kontutan izango dituzte gutxienetik maila altuagoetara mailakatuz.

2.- Egokitzapen Kurrikularrak

Tutoreek beraien programaketak taldeari egokitu beharra dituzte eta, beharra izanez gero, egokitzapen kurrikularrak ere egin beharko lituzkete, HLUren partaideen laguntzarekin.

Egokitzapen kurrikularrak proposamen kurrikular indibidualizazio haundiena suposatzen dute askotan helburu, edukin eta ebaluaketa erizpideen aldaketa eskatuz. Huek ikasle konkretu bati zuzenduko zaizkio edota baita taldetxo bati ere arrazoi ezberdinangatik. Atentzio era honekin ikasle guztietara heldu nahi da edozein direlarik beraien interes, motibazio, aurre-ikasketak . Beti ere Oinarrizko kurrikulua guztien erreferentzi izanen da.

Egokitzapen ez-esanguratsuak: helburu, edukinak eta ebaluaketa erizpideak sartzen edota aldatzen datza. Erreferentzia ikasleari adinarengatik dagokion ziklotik aldentzen da eta batzutan baita etapatik ere. Batzutan baliabide bereziak ere aplikatu behar izaten dira kurrikulumara heldu ahal izateko.

3.- Tutoriak

Irakaslego guztiari dagokio ikasleen beharren aurrean erantzuna eskeintzea.

Tutorearen eskutan gelditzen da ikasle guztiek beraien ahalmenetan aurrera egin dezaten eta hauekiko ebaluaketa egitea beste ginerako irakasle guztiekin erizpide eta helburu berdinak izanez. Errefuertzoz, egokitzapen ez esanguratsuak, esanguratsuak eta bestelako laguntzak tutoreak planifikatuko ditu. Era berean gurasoekin beharrezko korodinazioa izanen du hartu beharreko neurrien aurrean.

Ikusi 1-go Gehigaria

3.1.2.- Antolaketa neurriak

1.- Errefuertzoz eta hezkuntza laguntzak

Ikasteko nolabaiteko zailtasunak izanik curriculum egokitzapen handirik behar ez duten ikasleen zuzeneko ardura ohiko irakasleena izanen da eta helburuak lortzen saiatuko da edukinak ahalik eta gutxien aldatu gabe. Neurri hauen aurrean eskolako irakaslego guztia inplikatu beharko da.

2.- Talde elkarketak/Bikoizketak

Bikoizketak talde homogeen edo heterogeonekin egin daitezke hariketa eta beharren arabera. Gure zentruan maila ezberdineko taldeak biltzen ditugunez gela berean, neurri hau ezinbestekoa da eta, kasu hauetarako, baliabide nahikoak beharrezkoak izaten dira.

3.- Etapan urte bateko luzapena

Ikasle hauek zeinek zikloko helburuak lortzeko zailtasunak dituzten, beste urte batez etapan gelditzeko aukera eskeiniko zaie. Irakasleek beraien indarrak lortu gabeko helburuetan zentratuko dituzte. Urte bateko luzapena ahalik eta azkarren egingen da ikas prozesuko ezberdintasunak denboraz "gainditu" ditzazten. Urte bateko irakortasun hori erabakitzerakoan Ebaluaketa Bilerak izango du hitza.

4.- H.B.B.-ak dituzten ikasleen laguntza

Interbentzio espezializatuak modu normalizatu batean H.B.B.-ei erantzuna ezin zaienean eman bakarrik izanen dira. Interbentzioa talde txikitan edota erreferentzi taldean emanen dira beti ere lehentasuna emanez gela barruan laguntza eskeintzeari eta, ezinezkoa denean, gelatik kanpo. Pedagogia terapeutiko irakasleak, ezgaitasun psikikoari, zentzumenezkoari edo mugimendukoari nahiz jokabide nahaste larriei loturiko HPBak dituzten ikasleei hezkuntza laguntza ematearen ardura izanen da, ohiko irakasleekin elkarlanean.

3.2.- Atentzio erak

- Tutoreak indibidualki ikaslea inolako laguntzarik gabe atendituko du.
- Beste irakasle/zailtzaile gela mailan lana egiten du ikasle kokretu bati zuzendua.
- Bikoizketa: talde homogeen zein heterogeneo ekintzen eta beharren arabera
- Laguntza gelatik kanpo: talde txikitan edo bakarka
- Ikasturte hasieran Urteko plangintzan zein nolako talde bilketak egingen dira beti ere hbb-ak eta ikastetxeko baliabideak kontutan izanik.

2.4.- H.B.B.-ak dituzten ikasleen aurrean jarraitu beharreko prozedura

Lehenengo ikasle batengan beharrak somatzen dira edozeinen eskutik dela: guraso, tutore, bestelako irakasle... Ondoren baliabide ezberdinak jarraituz informazioa biltzen da: "Protokolo" delako txostena (eranskin) erabiliko dugu irakasleengandik hasierako informazioa jasotzearren, ondoren, behaketak, aurreko informeak, hasierako ebaluaketa, familiak eskeinitako informazioa... Informazioa bildu ondoren erantzun bat ahalik eta normalizatuena eskeiniko da eta, honekin nahikoa bada, prozesua bukatutzat emango da. Baina emaitza kontrakoa izanik, kasua Hezkuntzarako Laguntza Unitatetik pasako da bertako kideen eta gainerako irakaslegoaren inplikazioarekin beharrezko

hezkuntza neurriak erabaki eta jartzeko. Beharrak egokitzapen esanguratsua eskatuko balute, dagokion dokumentuan erreflejatuta behartu litzateke.

3.3- Multikulturalitate Trataera

Gai honen barruan “kultura gutxitu” bateko biztanlegoaz hitzegiten dugunean esan nahi dugu baldintza ezberdinak dituztela beraien kultura garatzeko eta mantentzeko beste baten menpe bait daude. “Minorías culturales y/o étnicas” delakoetaz ari gara.

Gure Ikastetxean Europa ekialdeko herrialdeetako ikasleak ditugu nola Hegoamerika eta afrikarrak ere.

Hauek **beharrak honakoak dira:**

- Atzerriko hizkuntzak
- Eskolarizazio berantiarra eta hutsegite asko
- Garbitasun azturak
- Ikas material indibiduala
- Elikadura azturak
- Talde egokitzapenak

Aipatutako beharrak hezkuntza erantzunari dagokiones lana integratua eskatzen dute bertako zerbitzuekin bat: Zerbitzu Sozialak, Osasun Zentroa, familiarekin kontaktuak... eta beste espezifikagoak direnak eta Tutoria Planaetan nola hezkuntza osoan eragina duten.

Ikaslego honen beharrak atenditzeko PT-ren lana ez da izanen irakaslego arruntak eman behar bait dio erantzuna.

HARRERA EGITEKO PROGRAMAREN ESKEMA

	Helburuak Zertarako?	Arduradunak Nortzuk?	Prozedura Nola?	Jarduerak Zertarako?
<p>1. HEZKUNTZA KOMUNITATEA SENTZIBILIZATZEA KULTURA ARTEKOTASUNEAN</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleekin • Gurasoekin • Irakasleekin <p>2. FAMILIARI HARRERA EGITEA IKASTETXEAN</p> <p>2.1 Harrera egitea</p> <p>2.2 Ikastetxeak emandako dokumentazioa</p> <p>2.3 Eskatutako dokumentazioa</p> <p>2.4 Familia tutoretzapean jartzea</p> <p>3. HASIERA EBALUAZIOA ETA ATXIKIPENA</p> <p>3.1 Gaztelania jakin gabe</p> <p>3.2 Gaztelania jakinda</p> <p>3.3 Ikasgelako taldeari atxikitzea</p> <p>4. IKASLEEI HARRERA EGITEA IKASGELAN.</p> <p>4.1 Aurkezpen jarduerak eta elkar ezagutzekoak</p> <p>4.2 Ikasle tutoreak</p>				
	Helburuak Zertarako?	Arduradunak Nortzuk?	Prozedura Nola?	Jarduerak Zertarako?
<p>5. CURRÍCULUMERA AILEGATZEA</p> <p>5.1 Gaztelania bigarren hizkuntza bezala ikatea</p> <p>5.1.1 Metodologia eta material didaktikoak</p> <p>5.1.2 Gaztelania ikatea eta curriculumera ailegatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • I. maila • II. maila • III. maila <p>5.2 Curriculumaren oinarritzko edukiak enborreko irakasgaietan.</p> <p>5.3 Atzerriko hizkuntza sartzea</p> <p>6. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA</p> <p>6.1 Taldekatzeak (posibleak)</p> <p>6.1.1. A/B taldeak</p> <p>6.1.2. Mailen/diziplinen arteko taldeak</p> <p>6.1.3. Bi taldetatik hiru talde ateratzea.</p> <p>6.2 Curriculum egokitzapenak</p> <p>6.3 Koordinazio neurriak</p> <p>6.4 Eskolaz kanpoko jarduerak</p> <p>6.5 Beste entitate batzuekin elkarlanean aritzea.</p>				

	Helburuak Zertarako?	Arduradunak Nortzuk?	Prozedura Nola?	Jardue Zer?
<p>7. KULTURA ARTEKOTASUN GAITASUNAK GARATZEA</p> <p>7.1. Ikastetxean dauden kulturak ezagutzea.</p> <p>7.2. Gizartean elkar eragiteko eta elkar bizitzeko trebetasunak</p> <p>8. METODOLOGIA ESTRATEGIAK</p> <p>8.1 Praktika pedagogiko onak proposatzea</p> <p>8.1.1 Ikaskuntza kooperatiboa</p> <p>8.1.2 Ikasleek eta familiarek tutoretza egitea</p> <p>8.1.3 Boluntarioen laguntza</p> <p>8.2 Prestakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleena • Gurasoena • Boluntarioena <p>9 HARRERA PLANA AUTOEBALUATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Galde sorta 				